

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkatearen otsailaren 24ko 2025/44 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onetsi zen:

Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile azpieskalari dagokion lanpostu hori estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordeta dago.

Lanpostu hori hutsik geratuko da 2025eko martxoaren 10etik aurrera, gaur egun plaza hori betetzen duenak 2025eko otsailaren 21ean aurkeztutako ukoaren ondoren (sarrera erregistroko zenbakia: 2025/281).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori behin-behineko izendapenez edo zerbitzu eginkizunez beteko da, Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. 51. artikuluetan xedatutako legezko moduetako edozeinetan.

Estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiak, eta hori behar bezala egiaztatu beharko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkeztzen bada, honako hau proposatuko da izendatua izateko: parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena.

Idazkia Donemiliagako Udalaren egoitza elektronikoaren erregistro elektroniko komunaren bidez aurkeztuko da.

Bigarren. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarekin. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarren. Arabako Foru Aldundiari hautatutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea.

Laugarren. Hautagairik aurkeztzen ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. 51. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarren. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Erdoña, 2025eko otsailaren 24a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO